Desde 12 cv hasta menos de 16 cv fiscales	70	5 años
16 cv fiscales o más	50	4 años

Jasotako hobaria baliatzeko epea izango da, 1. matrikulazioaren dataren hurrengo ekitalditik zenbatzen hasita

El plazo de disfrute de la bonificación recogida será contado a partir del ejercicio siguiente de la fecha de 1ª matriculación del vehículo.

3.Zerga kuotaren hobaria izango dute Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan honela sailkatutako ibilgailuek:

- ibilgailu hibridoa (HV),
- ibilgailu hibrido entxufagarria (PHEV),
- Ibilgailu hibrido ez-entxufagarria (HEV),
- erregai-pilako ibilgailu elektrikoa (FCEV),
- ibilgailu elektriko erdihibridoa edo hibrido arina (MHEV),
- autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (REEV),
- hidrogenozko ibilgailua (HICEV),
- erregai-zelulen ibilgailu elektrikoa (FCV).
- erregai-zelulen ibilgailu hibrido eletrikoa (FHCV).
- gas natural (GNC eta GNL) edo petrolioaren gas likidotu (GLP) bidez propultsatutako ibilgailuak.

3.Gozarán de una bonificación en la cuota tributaria, los vehículos clasificados en el Registro de Vehículos de la Dirección General de Tráfico como:

-vehículo híbrido (HV),
- vehículo hibrído enchufable (PHEV),
- vehículo híbrido no enchuble (HEV),
- vehículo eléctrico de pila combustible (FCEV),
- vehículo eléctrico semihibrido o híbrido ligero (MHEV),
- vehículo eléctrico de autonomía extendida (REEV),
- vehículo de hidrógeno (HICEV),
- vehículo eléctrico de células combustible (FCV),
- vehículo híbrido eléctrico de células combustible (FHCV),
- vehículos propulsados por gas natural (GNC y GNL) o gas licuado del petróleo (GLP).

Potentzia fiskala	**Hobaria%**	**Iraupena**
12 zf baino gutxiago	60	6 urte
12 zf-tik 16 zf fiskal baino gutxiagora	50	5 urte
16 zf edo gehiago	40	4 urte

Potencia fiscal	**Bonificación %**	**Duración**
Menos de 12 cv fiscales	60	6 años
Desde 12 cv hasta menos de 16 cv fiscales	50	5 años
16 cv fiscales o más	40	4 años

Jasotako hobaria baliatzeko epea izango da, 1. matrikulazioaren dataren hurrengo ekitalditik zenbatzen hasita

El plazo de disfrute de la bonificación recogida será contado a partir del ejercicio siguiente de la fecha de 1ª matriculación del vehículo

4. Hobari batzuk ezarri dira familia ugariaren titular diren subjektu pasiboentzat, diru-sarreren eta seme-alaba kopuruaren arabera

4-Se establecen ciertas bonificaciones a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa, en función de los ingresos y del número de hijos/as.

Semen-alaben kopurua	**0,00€-26.000,00€**	**26.000,01 € - 55.000,00 €**	**55.000,01€ - 90.000,00€**	**> 90.000 €**
3 arte	90%	60%	40%	0
4 arte	90%	70%	50%	0
5 edo gehiago	90%	90%	60%	0

N.º Hijos/as	**0,00€-26.000,00€**	**26.000,01 € - 55.000,00 €**	**55.000,01 €-90.000,00 €**	**> 90.000,00€**
Hasta 3	90%	60%	40%	0
Hasta 4	90%	70%	50%	0
5 o más	90%	90%	60%	0

Hobaria eskuratzeko baldintzak:

- Zergaren subjektu pasiboa familia ugariaren titularra izan beharko da.
- Familia-unitate bakoitzeko 5 plaza edo gehiago dituen turismo bati bakarrik aplikatuko zaio hobaria.
- Familiako kide guztiek Andoaingo etxebizitza berean erroldatuta egon behar dute.

Requisitos para acceder a la bonificación:

- El sujeto pasivo del impuesto deberá tener la condición de titular de familia numerosa.
- Únicamente se le aplicará la bonificación a un turismo con 5 plazas o más por unidad familiar.
- Todos los miembros de la familia han de estar empadronados en una misma vivienda de Andoain

Subjektu pasiboa erroldatzea nahikoa izango da dibortzio-kasuetan, baldin eta seme-alabekiko zaintza eta jagoletza partekatua adosten bada, seme-alaben bizilekua guraso bakoitzaren bizilekuan txandakatuz arautua, betiere gainerako baldintzak betetzen badira.

Kasu horretan, hobaria aplikatuko da:

* Familia ugariaren titularrak Andoainen helbideratuta dagoen ibilgailu bakar baten subjektu pasiboak badira eta horrek gainerako baldintzak betetzen baditu, horri.

El empadronamiento del sujeto pasivo será suficiente en los supuestos de divorcio en los que se acuerde la guarda y custodia compartida respecto de los hijos, regulado a través de una alternancia de la residencia de los hijos/as en el domicilio respectivo de cada progenitor/a, siempre que se cumplan los demás requisitos.

En este caso la bonificación se aplicará:

* Si los titulares de la familia numerosa son sujetos pasivos de un solo vehículo en Andoain que cumpla que cumpla los demás requisitos, a éste.

* Andoainen helbideratuta dauden bi ibilgailuen subjektu pasiboak badiera eta biek betetzen badituzte gainerako eskakizunak, biei erdibana.

Hobari horiek ematearen ondorioak eskaeraren dataren hurrengo ekitalditik aurrekoak izango dira, eta inoiz ez dute izango atzera eraginik. Beraz, eskariak hobaria aplikatu aurreko urteko abenduaren 30 baino lehenago egin beharko dira.

Artikulu honetako hobariak hobaria eskatzen den zergaldiko urtarrilaren 1ean baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboei aplikatuko zaizkie.

Hala ere, matrikulazio berriko ibilgailuek 2 hilabeteko epea izango dute, Trafikoko Buruzagitzan alta ematen zaienetik zenbatzen hasita, hobaria eskatzeko, indarrean dagoen urtean ondorioak izan ditzan.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoaingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean.

-Eusko Jaurlaritza eta Autonomai Erkidegoak: Familia ugarien tituluen kontsulta.

-Foru Ogasunak: PFEZaren kontsulta hedatua.

- Trafikoko Zuzendaritza Nagusia:Gidari baten Gidabaimenetako kontsulta.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluarekin bat etorriz, eskatzileak bere datuak kotsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, beharrezko den dokumentua ezin badu modu telematikoan lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke.

Eskatutako onura fiskala lortzeko eta gozatzeko ezinbesteko baldintza izango da Udal Ogasunarekiko zordun ez izatea.

Hobariak ezingo dira metatu, eta zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da beti.

* Si son sujetos pasivos de 2 vehículos en Andoain, y ambos cumplen el resto de los requisitos, se repartirá por mitades entre los dos.

El efecto de la concesión de estas bonificaciones empieza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de solicitud y no puede tener carácter retroactivo. Por ello, las solicitudes deberán realizarse antes del 30 de diciembre del año anterior a la aplicación de la bonificación.

Las bonificaciones de este artículo serán aplicables a los sujetos pasivos que cumplan las condiciones el día 1 de enero del período impositivo para el que se solicite la bonificación.

No obstante, los vehículos de nueva matriculación dispondrán de un plazo de 2 meses desde la fecha de Alta en la Jefatura de Tráfico para solicitar la bonificación con efectos en el año en curso.

De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015 y el art. 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el ayuntamiento de Andoain consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a la bonificación, y en particular:

-Gobierno Vasco y comunidades autónomas: consulta de título de familia numerosa.

-Haciendas Forales: Consulta IRPF extendido.

- Dirección general de Tráfico: Consulta de Datos del Vehículo, Consulta de Permisos de conducir del conductor.

De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos, debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el ayuntamiento podría obligarle a presentar los correspondientes certificados.

Si este Ayuntamiento no puede obtener telemáticamente la documentación necesaria, deberá aportarla la persona solicitante.

Si el Ayuntamiento, en cualquier momento, comprobara que la persona solicitante ha perdido la condición que fundamenta la concesión de la bonificación ésta quedará automáticamente revocada.

Será requisito indispensable para obtener y disfrutar del beneficio fiscal solicitado no ser deudor de la Hacienda Municipal.

Las distintas bonificaciones no serán acumulables, siendo siempre de aplicación la más favorable para el contribuyente.

VII. KAPITULUA

KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA

7. artikulua.

Andoaingo Udalari dagokio zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, bai eta zergak kudeatzeko bidean emandako egintzak berrikustea ere, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den helbidea bere udalerrikoa denean.

8. artikulua.

Zerga autolikidazio erregimenean kudeatzen da matrikulazioaren eta zirkulatzeko baimenaren ondorioz zergan alta ematen zaien ibilgailuei dagokienez; eta gainerako ibilgailuak Udalak egiten duen Erroldaren bidez.

9. artikulua.

1. Ibilgailu baten matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtagiria edo behin betiko baja Trafiko Buruzagitzaren aurrean eskatzen dutenek, aldez aurretik, zerga ordaindu dutela egiaztatu beharko dute.

2. Ibilgailuen titularrek, Trafikoko Buruzagitzari aldaketa horien berri ematen diotenean, betiere zerga honen ondorioetarako sailkapena aldatzen badu, bai eta helbide-aldaketa, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den helbide-aldaketa edo ibilgailu horiei baja ematen bazaie ere

zerga kobratzeko aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu dutela egiaztatu beharko diote aldez aurretik Trafikoko Buruzagitzari. Kudeaketa eta ikuskapen-bidetik, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako zor guztien ordainketa.

Hamabost urteko edo gehiagoko antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak egiaztatzeko betebehar horretatik salbuetsita daude.

3. Trafiko Buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko aldez aurretik zerga ordaindu dela egiaztatzen ez bada.

10. artikulua.

Ez da berandutze-interesik eskatuko subjektu pasiboak borondatezko epean eskatu badu eta udalak ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko baimena eman badio. Onura hori lortzeko, zerga sortzen den ekitaldi berean ordaindu beharko da.

CAPÍTULO VII

GESTIÓN Y LIQUIDACIÓN

Artículo 7.

La gestión, liquidación, inspección y recaudación del impuesto, así como la revisión de los actos dictados en vía de gestión tributaria, corresponde al Ayuntamiento de Andoain cuando el domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo pertenezca a su término municipal.

Artículo 8.

El impuesto se gestiona en régimen de autoliquidación respecto a los vehículos que son alta en el impuesto como consecuencia de su matriculación y autorización para circular; y el resto de los vehículos a través del Padrón anual confeccionado por el Ayuntamiento.

Artículo 9.

1. Quienes soliciten ante la Jefatura de Tráfico la matriculación, la certificación de aptitud para circular o la baja definitiva de un vehículo, deberán acreditar, previamente, el pago del Impuesto.

2. Los titulares de los vehículos, cuando comuniquen a la Jefatura de Tráfico la reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este Impuesto, así como también en los casos de transferencia, de cambio de domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo, o de baja de dichos vehículos, deberán acreditar previamente ante la referida Jefatura de Tráfico el pago del último recibo presentado al cobro del Impuesto, sin perjuicio de que sea exigible por vía de gestión e inspección el pago de todas las deudas por dicho concepto devengadas, liquidadas, presentadas al cobro y no prescritas.

Se exceptúa de la referida obligación de acreditación el supuesto de las bajas definitivas de vehículos con quince o más años de antigüedad.

3. Las Jefaturas de Tráfico no tramitarán los expedientes de baja o transferencia de vehículos si no se acredita previamente el pago del Impuesto.

Artículo 10.

No se exigirá interés de demora cuando, habiendo sido solicitado por el sujeto pasivo en período voluntario, el Ayuntamiento le haya concedido el aplazamiento o fraccionamiento de pago. Para la obtención de este beneficio será preciso que el pago del impuesto se produzca en el mismo ejercicio que el de su devengo.

VIII. KAPITULUA

FORMA- ETA ZERGA-BETEBEHARRAK

11. artikulua.

Zerga honen xede diren ibilgailuen titularrek Trafikoko Buruzagitzan izapidetu behar dute zirkulazio-baimenean ageri den helbidea beren ohiko bizilekuari egokitzen zaion ala ez.

IX KAPITULUA

ERROLDAK

12. artikulua.

1. Dagoeneko matrikulatutako edo zirkulaziorako egokitzat jotako ibilgailuen kasuan, zergaren urteko kuotak martxoaren 1etik apirilaren 30era edo hurrengo egun baliodunera bitartean ordainduko dira.

2. Aurreko paragrafoan araututako kasuan, kuoten bilketa urteko errolda-sistemaren bidez egingo da. Erroldaren aldaketak Trafiko Erregistro Publikoko datuetan oinarrituko dira.

3. Zergaren errolda edo matrikula jendaurrean jarriko da kobrantza-aldia, interesdun legitimoek aztertu ahal izan dezaten eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Jendaurreko erakusketa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarriko da, eta subjektu pasibo bakoitzari likidazioa jakinaraztearen ondorioak izango ditu.

X. KAPITULUA

ITZULKETAK

13. artikulua.

Ibilgailuaren behin betiko baja zerga sortu ondoren gertatzen bada, eta kuota ordaindu bada Udalak, Ordenantza Fiskal honetako 5. artikuluko 2. atalean aurreikusitako hainbanaketa aplikatuz jasotzea dagokion zenbatekoa itzuliko du.

XI. KAPITULUA

XEDAPEN GEHIGARRIA

14. artikulua

11/1989 Foru Arauarekin bat etorriz, zerga honi aplikatuko zaizkio Zergen Foru Arau Orokorrean kudeaketa, likidazio,

CAPÍTULO VIII

OBLIGACIONES FORMALES Y TRIBUTARIAS

Artículo 11.

Los titulares de vehículos objeto de este Tributo deben tramitar en la Jefatura de Tráfico la adecuación del domicilio que conste en el permiso de circulación al de su residencia habitual.

CAPÍTULO IX

PADRONES

Artículo 12.

1. En el caso de vehículos ya matriculados o declarados aptos para la circulación, el pago de las cuotas anuales del impuesto se realizará del 1 de marzo al 30 de abril o inmediato hábil posterior.

2. En el supuesto regulado en el apartado anterior, la recaudación de las cuotas correspondientes se realizará mediante el sistema de padrón anual. Las modificaciones del padrón se fundamentarán en los datos del Registro Público de Tráfico.

3. El padrón o matrícula del impuesto se expondrá al público por un plazo de un mes para que los interesados legítimos puedan examinarlo y, en su caso, formular las reclamaciones oportunas.

La exposición al público se anunciará en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y producirá los efectos de notificación de la liquidación a cada uno de los sujetos pasivos

CAPÍTULO X

DEVOLUCIONES

Artículo 13.

Cuando la baja definitiva del vehículo se produzca con posterioridad al devengo del impuesto, y ya haya sido satisfecha la cuota, el Ayuntamiento procederá a la de devolución del importe que, por aplicación del prorrateo previsto en el apartado 2º del artículo 5 de la presente Ordenanza Fiscal, le corresponda percibir.

CAPÍTULO XI

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Artículo 14

De conformidad con la Norma Foral 11/1.989, son de aplicación a este impuesto las normas sobre gestión,

ikuskapen, bilketa eta arau-hauste eta zehapenei buruz arautzen diren arauak.

XII. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza Fiskala eta Eranskinean jasotako karga-tasak, hura osatzen dutenak, aldatu egin zituen udalbatzak, 2026ko urriaren 16an egindako bilkuran, eta 2027ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aplikatzen jarraituko da erregelamendu bidez aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Alkateak edozein aldaketa egin ahal izango du ordenantza fiskalean, baldin eta aldaketa horiek nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio badira eta, ondorioz, baldintzak aldatzen badira edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzen badira. Hori berariaz jasoko da, eta aldaketa horien berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berresteko.

liquidación, inspección, recaudación e infracciones tributarias y sanciones, reguladas en la Norma Foral General Tributaria.

CAPÍTULO XII

DISPOSICIÓN FINAL

La Ordenanza Fiscal y los tipos de gravamen contenidos en el Anexo, que forman parte integrante de la misma, fueron modificados por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 16 de octubre de 2026 y entrará en vigor el día 1 de enero de 2027, continuándose, aplicando en tanto no se acuerde su modificación o derogación en forma reglamentaria.

El alcalde o alcaldesa podrá insertar en la ordenanza fiscal cualquier tipo de modificación que responda exclusivamente a cambios legales que deban ser aplicados obligatoriamente y que conlleven una alteración de requisitos o adecuación automática de cuantías o porcentajes, lo cual se hará constar expresamente, y de ellas se dará cuenta inmediatamente al Pleno a efectos de su ratificación.

IV Eranskina

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Ibilgailu potentzia eta mota	**Kuota (€)**
A. Turismoak	
9 zaldi fiskal arte	49,91
9tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	101,15
12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	168,19
14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	235,28
16tik 19,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	303,40
20 zaldi fiskal baino gehiagokoak	370,34
B.-Autobusak	
21 plaza baino gutxiagokoak	229,11
21etik 50 plazatara bitartekoak	325,32
50 plaza baino gehiagokoak	406,87

Anexo IV

Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

Potencia y clase de vehículo	Cuota (€)
A. Turismos	
De menos de 9 caballos fiscales	49,91
De 9 hasta 11,99 caballos fiscales	101,15
De 12 hasta 13,99 caballos fiscales	168,19
De 14 hasta 15,99 caballos fiscales	235,28
De 16 hasta 19,99 caballos fiscales	303,40
De 20 caballos fiscales en adelante	370,34
B. Autobuses	
De menos de 21 plazas	229,11
De 21 a 50 plazas	325,32
De más de 50 plazas	406,87

C. Kamioak	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarri /	115,71
1.000 kg-tik 2.999 kgtara bitarteko karga erabilgarri	229,06
2.999 kg-tik 9.999 kgtara bitarteko karga erabilgarri	325,32
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarri	406,87
D. Traktoreak	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	48,77
16tik 25 zaldi fiskaletara bitartekoak	76,81
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	229,11
E. Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastaneramandako atoi eta erdi atoiak	
750 kg-tik 1.000 kg bitarteko karga erabilgarria/	48,77
1.000 kg-tik 2.999 kgtara bitarteko karga erabilgarri	76,81
2. 999 kg baino gehiagoko karga erabilgarri /	229,11
F. Gainerako ibilgailuak	
Ziklomotoreak	12,14
125 zk-tarainoko edo 10 kw-tarainoko motozikletak	12,14
125-250 zk. edo 10-20 kw bitarteko motozikletak	20,73
250-500 zk edo 20-40 kw bitarteko bitarteko motozikletak	42,65
500etik 1.000 zk edo 40-80 kw bitarteko motozikletak	85,30
1.000 zk edo 80 kw baino gehiagoko motozikletak	169,42

C. Camiones	
De menos de 1.000 kg carga útil	115,71
De 1.000 a 2.999 kg carga útil	229,06
De más de 2.999 a 9.999 kg carga útil	325,32
De más de 9.999 kg carga útil	406,87
D. Tractores	
De menos de 16 CF	48,77
De 16 a 25 CF	76,81
De más de 25 CF	229,11
E. Remolques y semiremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica	
De menos de 1.000 kg de carga útil y más de 750 kg de carga útil	48,77
De 1.000 a 2.999 kg de carga útil	76,81
De más de 2.999 kg de carga útil	229,11
F. Otros vehículos	
Ciclomotores	12,14
Motocicletas hasta 125 cc o 10 kw	12,14
Motocicletas de 125 a 250 cc o 10 a 20 kw	20,73
Motocicletas de más de 250 a 500 cc o 20 a 40 kw	42,65
Motocicletas de más de 500 a 1.000 cc o 40 a 80 kw	85,30
Motocicletas de más de 1.000 cc o más de 80 kw.	169,42

5. Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzailea

I.XEDAPEN OROKORRAK

5. Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

I.DISPOSICIONES GENERALES

1.artikulua.

Udal honek Ordenantza honen bitartez, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri eta exijitzen du, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauen eta tributuari dagokion Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera.

2.artikulua.

Ordenantza Andoaingo udal barruti osoan aplikatzen da.

II.EGITATE EZARGARRIA

3.artikulua.

Zerga honen egitate ezargarria obra edo hirigintza-lizentzia eskuratzea eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da, lizentzia hori jaso edo jaso ez arren, baita erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkeztea eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea ere, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea Andoaingo udalari badagokio.

4.artikulua.

Ondorengo kasu hauek zerga honen egitate ezargarria osatzen dute:

1.Solairu berridun mota guztietako eraikuntza edo instalazioetako eraikitze-obrak.

2.Mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.

3.Mota guztietako eraikuntza eta instalazioen egituran eragin dezaketen aldaketa edo berritze-lanak.

4.Mota guztietako eraikuntza eta instalazioen kanpoko itxura aldatzeko obrak.

5.Eraikuntzen barne antolaketa aldatzen duten obrak, beraien erabilera edozein dela ere.

6.Lurraren Legeko Testu Bateratuko 58. artikuluko 2 atalean azaltzen diren eta behin-behineko izaerarekin egin behar diren obrak.

7.Zerbitzu publikoen instalatzeko obrak.

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo, establece y exige el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, con arreglo a la presente Ordenanza.

Artículo 2.

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal de Andoain.

II.HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa, siempre que la expedición de la licencia o la actividad de control corresponda al ayuntamiento de Andoain.

Artículo 4.

A título enunciativo, constituyen supuestos del hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1.Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.

2.Las obras de ampliación de edificios instalaciones de das clases existentes.

3.Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas las clases existentes.

4.Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

5.Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

6.Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el apartado 2 del art. 58 del texto refundido de la Ley del Suelo.

7.Las obras de instalación de servicios públicos.

8.Lur erauzketak, lauketak, indusketa eta lurreztatze erako lur mugimenduak, salbuespen hauekin: onartutako edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiekturen batean zehaztutako eta programatutako obrak izatea.

9. Eraikuntzen erauzketa, aurri zorian daudela aitortuetan salbu.

10.Aparkaleku, industria, merkataritza edo lanbide iharduera, zerbitzu publiko edo lurrazpiari eman zaion beste erabilera batzuetara bideratutako lurpeko instalazioak.

11.Bide publikotik ikusteko moduan egiten den propaganda kartelak jartzea.

12.Gaitasun ekonomikoa erakusten duen eta obra eta hirigintza baimena eta baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duen edozein obra, eraikuntza edo instalazioak.

5.artikulua.

1.Zerga honen pean ez dira egongo Udal honi dagokion titularitate dominikaleko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak obraren jabe izateko baldintza Udalak betetzen badu.

2.Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren ordainketatik salbuesten da, Estatua, Euskal Autonomi Elkartea, Lurralde Historikoak edo Toki Entitateak berauen jabe izanik eta berari lotuta egonik, errepidetara, trenbidetara, portutara, aireportutara, obra hidraulikotara, herrien eta hauen hondakin uraren saneamendutara zuzenean destinatuko diren eraikuntza, instalazio edo obren burutzapena, nahiz eta horien kudeaketa Organismo Autonomoek burutu, bai inbertsio berriko obren kasuan, eta bai kontserbazio obren kasuan ere**.**

III.SUBJEKTU PASIBOAK
6.artikulua.
Eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisiko, pertsona juridiko eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35 artikuluaren 3 apartatuak aipatzen dituen entitateak dira, zergadun gisa, Zerga honen subjektu pasiboak, horiek egiten diren ondasun higiezinaren titularrak izan edo ez.

8.Los movimientos de tierra, tales como desmontes. explanaciones, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.

9.La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10.Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales. mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11.La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

12.Cualesquiera obras, construcciones o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanística.

Artículo 5.

1.No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponde al Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

2. Esta exenta del pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, Comunidad Autónoma Vasca, Territorio Foral o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión como de conservación.

III.SUJETOS PASIVOS
Artículo 6.
Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas, personas jurídicas o entidades del apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituena izango da eraikuntza, instalazio edo obraren jabea.

7.artikulua.
Eraikuntza, instalazio edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, beharrezko lizentziak eskatu, erantzukizunezko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat hartuko dira.

Ordezkoak zergadunari exijitu ahal izango dio ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

IV.OINARRI EZARGARRIA

8.artikulua.
Eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta efektiboak osatzen dute Zergaren zerga-oinarria. Kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela ulertzen da.

Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, interesdunek aurkezturiko exekuzio materialaren aurrekontua kontuan hartuko da, beti ere bidezko Elkargo Ofizialak ikus-onetsi badu.

Aurreko atalean adierazitako ezaugarriak betetzen ez dituen aurrekontuaren kasuan nahiz aurretiazko lizentzia lortu ez duten eraikuntza, instalazio eta obren kasuan, udaleko teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, proiekturako aurreikusitako kostuaren arabera.

Oinarri ezargarritik kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litezkeen tasa, prezio publiko eta udal mailako gainerako ondare-prestazioak, eta, orobat, profesionalen ordainsariak, kontratistaren mozkin enpresariala eta hertsi-hertsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez duten bestelako kontzeptuak.

A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

Artículo 7.
En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente, tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias, o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas, o realicen las construcciones, instalaciones u obras.

El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

IV.BASE IMPONIBLE

Artículo 8.
La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción instalación u obra. Se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquélla.

A efectos de lo dispuesto en el número anterior, se atenderá al presupuesto de ejecución material presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiere sido visado por el Colegio Oficial correspondiente.

En el supuesto de inexistencia de presupuesto con las características indicadas en el apartado anterior así como en el caso de construcciones, instalaciones y obras para las que no se haya obtenido la preceptiva licencia, la base imponible será determinada por los técnicos municipales de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial del contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

V.TRIBUTU KUOTA
9.artikulua.
1. Zerga honen kuota oinarri ezargarriari karga tasa aplikatuz aterako da.

2. Zergaren karga tasa 100eko 5a izango da.

V.CUOTA TRIBUTARIA
Artículo 9.
1. La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen.

2. El tipo de gravamen del Impuesto será del 5 por 100.

VI.HOBARIAK

10.artikulua.

1.Zerga kuotaren gainean obari hauek aplikatuko dira:

a)100eko 95era bitarteko hobaria eraikuntzak, instalazioak edo obrak **interes berezikoak edo udal onurakoak** izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

Hala ere, ordenantzan aurreikusitako kasuak gertatzeak **ez du automatikoki ekarriko interes bereziko edo udal-onurako deklarazioa**, ez eta hobariaren aplikazioa ere, eta dagokion deklarazioa Foru Arauan eta ordenantza fiskalean bertan ezarritakoaren arabera izapidetu eta ebatzi beharko da.

Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin

b)%95eko hobaria,eraikuntza,instalazio edo obretn baldin eta:

— Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen **aprobetxamendu termiko edo elektrikoa** ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur beroko sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.

— Haien xedea bada A edo B motako **energia etiketa bat lortzeko** energia birgaikuntza. Horretako, hobari portzentajea aldakorra izan daiteke, energia etiketaren motaren arabera.

VI.BONIFICACIONES

Artículo 10.

1.Se aplicarán las siguientes bonificaciones sobre la cuota del impuesto:

a)Una bonificación de hasta el 95 por 100: a favor de las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de **especial interés o utilidad municipal** por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración.

No obstante, la concurrencia de los supuestos previstos en la ordenanza **no determinará automáticamente la declaración de especial interés o utilidad municipal ni la aplicación de la bonificación**, debiendo tramitarse y resolverse la correspondiente declaración de conformidad con lo establecido en la Norma Foral y en la propia ordenanza fiscal

Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo.

b)Una bonificación del 95% a favor de las construcciones, instalaciones u obras:

— En las que se incorporen sistemas para el **aprovechamiento térmico o eléctrico** de la energía solar o de otras energías renovables. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores o sistemas de calefacción y agua caliente sanitaria (ACS) que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente.

— Que tengan como finalidad la rehabilitación energética para la **obtención de una etiqueta energética** de clase A o B.

— Haien xedea bada **energia birgaikuntza eta irisgarritasuna** barne hartzen dituen higiezinen birgaikuntza integrala. Horretarako, energia birgaikuntzaren xedea izan behar da A edo B motako energia eraginkortasuneko etiketa bat lortzea.

— Udalerriko auzo edo eremuetan **energia berriztagarriak sartzeko** birgaikuntza integraleko proiektuen testuinguruan egiten badira.

Letra honetan aipatutako hobaria aplikatuko da, bakar bakarrik, indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrez inbertitu behar ez diren kopuruen gainean.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoaingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen higiezinaren energia-efizientziaren etiketari buruzko informazioa.

Udalak beharrezko den dokumentua ezin badu modu telematikoan lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluarekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Interesdunak horren aurka egiten badu, energia-efizientziaren ziurtagiri inskribatua aurkeztu beharko du eskabidearekin batera.

c)%50ko hobaria eraikuntza, instalazio edo obrak **azpiegituretan inbertsio pribatuak sustatzeko planekin** lotuta daudenean.

d)%50ko hobaria **babes publikoko etxebizitzekin zer ikusia** duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean.

— Que tengan como finalidad la rehabilitación integral de inmuebles que englobe la **rehabilitación energética y accesibilidad**. A estos efectos, la rehabilitación energética ha de tener como finalidad la obtención de una etiqueta de eficiencia energética de clase A o B.

— Que se realicen en el marco de proyectos de rehabilitación integral de barrios o zonas del término municipal para la **incorporación de energías renovables**.

La bonificación a que se refiere esta letra será aplicable, exclusivamente, sobre las cantidades cuya inversión no sea obligatoria de acuerdo con la legislación vigente.

De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015 y el art. 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el ayuntamiento de Andoain consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a la bonificación y en particular, la información relativa a la etiqueta de eficiencia energética del inmueble obrante en poder del Gobierno Vasco.

Si este Ayuntamiento no puede obtener telemáticamente la documentación necesaria, deberá aportarla la persona solicitante.

De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos, debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el ayuntamiento podría obligarle a presentar los correspondientes documentos.

En caso de que la persona interesada se opusiera a ello, junto a la solicitud deberá presentar el certificado de eficiencia energética inscrito.

c)Una bonificación del 50% a favor de las construcciones, instalaciones u obras vinculadas a los **planes de fomento de las inversiones privadas en infraestructuras.**

d)Una bonificación del 50% a favor de las construcciones, instalaciones u obras **referentes a las viviendas de protección pública**.

e)%90ko hobaria eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona **ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun** baldintzak errazten dituztenean.

f)%90ko hobaria **ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko** beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio edo obren alde. Hobari hori aplikatuko bada, instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa izan behar dute.

g)%50ko hobaria: zuzenean **ekonomia zirkularrarekin lotutako xedea duen jarduera ekonomiko bat egiteko** beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio edo obren alde.

Horretarako, jarduera ekonomiko baten xedea zuzenean ekonomia zirkularrarekin lotuta dagoela ulertuko da jarduera ekonomikoaren helburua hondakinak balorizatzea bada.

2. Atal honetako bi hobari-kasu edo gehiago gertatzen badira, ehuneko handiena duen kontzeptuagatik soilik aplikatuko da hobaria.

3. Hobariak espresuki eta idatziz eskatu behar dira, hirigintzako lizentzia jakinarazten denetik edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean. Eskaerarekin batera, alegatutako hobaria emateko zioaren frogagiria eman behar da.

4.Artikulu honetan aurreikusitako hobariak eskatu eta aplikatu ahal izateko, interesdunak, hobari-eskaerarekin batera, obren aurrekontu banakatua aurkeztu beharko du. Aurrekontu horretan, hobaria jasotzeko eskubidea ematen duten jarduketei dagozkien obra-unitateak, partidak eta kostuak bereizita identifikatu beharko dira.

Obrek barnean hartzen badituzte hobaririk jaso ezin duten jarduketak, jarduketa horiek ere bereizita agertu beharko dira aurrekontuan.

Behar bezala xehatutako aurrekontua aurkezten ez bada edo ezin bada zehaztu hobariaren xede diren jarduketen kostua, hobaria ukatu ahal izango da, hargatik eragotzi gabe Administrazioak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio

e)Una bonificación del 90% a favor de las construcciones, instalaciones u obras que favorezcan las condiciones de **acceso y habitabilidad de los discapacitados**.

f)Una bonificación del 90% a favor de las construcciones, instalaciones u obras necesarias para la **instalación de puntos de recarga para vehículos eléctricos**. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones dispongan de la correspondiente homologación por la Administración competente.

g)Una bonificación del el 50% a favor de las construcciones, instalaciones u obras necesarias para el **desarrollo de una actividad económica cuyo objeto se encuentre directamente vinculado con la economía circular**.

A estos efectos, se entenderá que el objeto de una actividad económica se encuentra directamente vinculado con la economía circular si la actividad económica tiene por objeto la valorización de residuos.

2.En el caso de que concurran dos o más supuestos de bonificación de este apartado, la bonificación se aplicará únicamente por el concepto con mayor porcentaje.

3.Las bonificaciones deben ser solicitadas por escrito por los interesados en el plazo de 2 meses a partir de la notificación de la correspondiente licencia urbanística o presentación de la declaración responsable o comunicación previa. Junto con la solicitud se deberá presentar documentación acreditativa de la causa que de derecho a la bonificación.

4.Para poder solicitar y aplicar las bonificaciones previstas en este artículo, la persona interesada deberá presentar, junto con la solicitud de bonificación, un **presupuesto desglosado de las obras**, en el que se identifiquen de forma diferenciada las unidades de obra, partidas y costes correspondientes a las actuaciones que dan derecho a la bonificación.

Cuando las obras incluyan actuaciones que no sean susceptibles de bonificación, estas deberán figurar igualmente diferenciadas en el presupuesto.

La falta de presentación del presupuesto debidamente desglosado, o la imposibilidad de determinar mediante el mismo el coste de las actuaciones objeto de bonificación, podrá determinar la **denegación de la bonificación**, sin perjuicio de que la Administración pueda requerir la documentación complementaria que considere necesaria

osagarria eskatu ahal izatea ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

5. Onura fiskala lortzeko eta baliatzeko ezinbesteko baldintza izango da udal-ogasunaren zorduna ez izatea.

VII.SORTZAPENA

11.artikulua.
Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan sortzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

VIII.KUDEAKETA

12.artikulua.

Aginduzko lizentzia ematerakoan edo erantzukizunezko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten direnean, behin-behineko likidazioa egingo da, eta zerga-oinarria aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, baldin eta aurrekontu hori dagokion elkargo ofizialak ontzat eman badu; horrela ez bada, edo lizentzia lortu ez den kasuetan, udal-teknikariek, proiektuan aurreikusitako kostuaren arabera, zehaztuko dute zerga-oinarria.

13.artikulua.
Dagokion lizentzia eman ondoren lehen proiektua aldatuko balitz, behin-behineko likidazio berri bat egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko da, lehen aurrekontua garestitzen den zenbatekoaren arabera.

14.artikulua.
Eraikuntza, instalazio edo obra amaitutakoan, eta haren kostu erreal eta efektiboa aintzat harturik, Udalak, bidezko egiaztapen administratiboa egin ondoren, aurreko atalean aipatutako oinarri ezargarria aldatuko du, hala badagokio. Kasu horretan, behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari behar den zenbatekoa eskatu edo, hala bada, itzuliko dio.

Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obra behin-behinekoz onartu ondoko hilabetean egoera horren berri eman beharko da Udal Administrazioak eskuratuko dion inprimaki batean; horrekin batera obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, dagokion elkargo profesionalak onartua, horretarako aukera dagoenean behintzat, eta ziurtagiri horretan obren

para comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos.

5.Será requisito indispensable para obtener y disfrutar del beneficio fiscal solicitado no ser deudor de la Hacienda Municipal.

VII.DEVENGO

Artículo 11.
El Impuesto se devenga en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra, aun cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

VIII.GESTIÓN

Artículo 12.
Cuando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o comunicación previa se practicará una liquidación provisional, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente; en otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

Artículo 13.
Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

Artículo 14.
A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que le corresponda.

A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique

kostua osoa azalduko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria-mozkina eta horien ondorioz sor daitezkeen gainerako guztiak barne direla.

el costo total de las obras incluidos los derechos facultativos del proyecto y dirección, beneficio industrial y otros que puedan existir por motivo de los mismos.

15.artikulua.

Zergaren likidazioaren ondorioetarako, administrazioaren isiltasunez emandako baimenek berariaz emandako baimenen eragin berbera izango dute.

Artículo 15.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

16.artikulua.

Ordenantza honetan araututako zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, era berean zerga arloko arau-hausteen kalifikazioa eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenak erabakitzeari dagokienez, Foru Zerga Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikagarri.

Artículo 16.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto regulado en esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será la aplicación prevista en la Norma Foral General Tributaria.

17.artikulua.

Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakiko balu, idatzi bidez espreski adieraziz, Udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuliko du edo erabat baliogabetuko du.

Artículo 17.

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

18.artikulua.

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du, salbuespena izango da titularrak berritzea eskatzea eta udalak baimena ematea.

Artículo 18.

Caducada una licencia el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

IX.AZKEN XEDAPENA

Lehena.- Ordenantza Fiskal hau eta bere Eranskina, haren parte dena, aldatu egin zituen udalbatzak, 2026ko urriaren 16an egindako bilkuran, eta 2027ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Urtean zehar onartzen diren aldaketak indarrean sartuko dira behin betiko akordioa eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan.

IX.DISPOSICIÓN FINAL

Primera.-Esta Ordenanza Fiscal fue modificado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 16 de octubre de 2026 y entrará en vigor el día 1 de enero de 2027.Cualquier modificación aprobada a lo largo del ejercicio, entrará en vigor una vez se haya publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el acuerdo definitivo de modificación, así como el texto de la misma.

Bigarrena.- Alkateak edozein aldaketa egin ahal izango du ordenantza fiskalean, baldin eta aldaketa horiek nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio badira eta, ondorioz, baldintzak aldatzen badira edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzen badira. Hori berariaz jasoko da, eta aldaketa horien berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berresteko.

Segunda.- El alcalde o alcaldesa podrá insertar en la ordenanza fiscal cualquier tipo de modificación que responda exclusivamente a cambios legales que deban ser aplicados obligatoriamente y que conlleven una alteración de requisitos o adecuación automática de cuantías o porcentajes, lo cual se hará constar expresamente, y de ellas se dará cuenta inmediatamente al Pleno a efectos de su ratificación.

6. Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko zergaren Ordenantza Fiskal arautzailea

1. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauen eta tributuari dagokion Foru Arauean aurrikusitakoaren arabera Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta esijitzen du, Ordenantza honi jarraiki, balio-gehikuntza sortu den aldiaren araberako koefizienteen taula eta tarifa aplikagarriak dituen VI Eranskina parte delarik.

2. artikulua.

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. artikulua.

1. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko zerga bat da, eta hiri-lurren balio-gehikuntza zergapetzen du, lursail horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzearen ondorioz, edo jabaria mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzearen ondorioz.

2. Eragin hauetara, hurrengoak izango dute hirilurren kontsiderazioa:

